



FA/OF	219	2019
-------	-----	------

Foru diputatuak ondoko agindua eman du gaur:

“Gizarte Politikako Departamentuko Haur eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak aholkularitza juridiko integrala behar du bere jardueraren arlo jakin batzuetan, zeintzuen ezaugarria baita heldu beharreko gaiak espezializatuak izatea, baita zuzenekoak, pertsonalak, banakakoak eta erabat isilpekoak ere.

Zeregin asko egin behar direnez, kanpoko profesional espezializatuak eman behar dute zerbitzu hori: bai aholkularitza bera, bai haurren zerbitzuko langileen prestakuntza, bai laguntza ematea, txostenak egitea, demanda judizialak eta Erregistro Zibilean espedienteak aurkeztea, eta Departamentuak langile nahikorik eta egokirik ez duen beste zeregin batzuk.

2019ko otsailaren 22an, 115/2019 zenbakia duen foru agindua eman zen, eta honekin aipatu zerbitzuari buruzko kontratazio espediente onartu zen eta honen lizitazio iragarkia Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratatzailearen profilean argitaratzea agindu zen.

2019ko otsailaren 27an Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratatzailearen profilean lizitazio iragarkia argitaratu zen; eskaintzak aurkezteko epea martxoaren 15ean bukatzen zen. Martxoaren 20an eta 21ean kontratazio mahaiaren bilkurak burutu ziren, eta hauen emaitza lizitaziora aurkeztutako eskaintzaren bazterketa izan zen, M.G.I.B.rena, hain zuzen ere.

Haur eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuari egonkortasuna eman ahal izatea beharrezkoa jarraitzen du izaten, eta hori dela eta, dagokion kontratazio espediente berria prestatu da, non hiru (3) urteko kontratua aurreikusten den, beste bi (2) urtebetez urtez-urte luza daitekeela, denera bost (5) urtebete arte.

Urtebeteko gehieneko lizitazio prezioa 49.572,00 €koa da gehi 10.410,12 € %21eko BEZa kontzeptuan, guztira 59.982,12 €.

La diputada foral, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

“El Servicio de Protección a la Infancia y Adolescencia del Departamento de Políticas Sociales precisa asesoría jurídica integral en áreas concretas de su actividad caracterizadas por su especialidad temática así como por el carácter directo, personal, individualizado y estrictamente confidencial de los temas a abordar.

Dicho servicio debe ser atendido por profesionales externos y especializados dada la multitud de tareas a desarrollar, desde la propia asesoría hasta la formación al personal del servicio de infancia, pasando por acompañamientos, elaboración de informes, demandas judiciales, expedientes ante el Registro Civil y otras tareas para las que el Departamento no dispone en su plantilla de personal suficiente y adecuado.

Con fecha 22 de febrero de 2019 se dictó la Orden Foral 115/2019 mediante la cual se aprobó el expediente de contratación del citado servicio y se ordenó la publicación del anuncio de licitación en el perfil del contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El 27 de febrero de 2019 se publicó en el perfil del contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa el anuncio de licitación, cuyo plazo de presentación de ofertas finalizó el 15 de marzo. Los días 20 y 21 de marzo se celebraron las reuniones de la mesa de contratación siendo el resultado de las mismas la exclusión de la oferta presentada a esta licitación, la de M.G.I.B.

Sigue siendo necesario dotar de una cierta estabilidad al Servicio de Protección a la Infancia y Adolescencia del Departamento de Políticas Sociales, por lo que se vuelve a tramitar un nuevo expediente de contratación, con una duración inicial prevista de tres (3) años, prorrogable como máximo por otros dos (2) años más hasta un total de cinco (5) años.

El precio máximo de licitación anual es de 49.572,00 € más 10.410,12 € de IVA (21%), total anual: 59.982,12 €.



Hasierako iraunaldiko gehienezko aurrekontua, kontratua sinatzen denetik aurrera hiru (3) urteko iraupena izango duena, alegia, honakoa izango da: 148.716,00 € gehi BEZa eta kontratuarentzat aurreikusten den balio estimatua, egin daitezkeen bi (2) luzapenak barne, hau da: 247.860,00 €, gehi BEZa, guztira 299.910,60 €.

Lehiaketa honen xede diren zerbitzuak izaera iraunkorreko zerbitzu bezala sailkatuta daude eta etengabeko traktukotzat jotzen da, beraz kontuan hartuz 2007ko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu araubidearenak, 54.3 artikuluan xedatutakoa, ez da konpromiso kredituen barruan sartzen, nahiz eta hainbat urtetarako izan.

Zerbitzuen kontratu bat da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 17 artikulua, 9/2017 Legea azaroaren 9koa, dionaren arabera.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 156 artikulua ezarritakoari jarraituz, prozedura irekiaren bidez esleituko da.

Horregatik guztiagatik, foru diputatu honek

XEDATZEN DU

Lehenengo.- Adieraztea 115/2019 foru aginduaren bidez arautzen den lizitazio prozesuan, M.G.I.B. lizitatuak aurkeztutako eskaintza, baztertuta geratzen dela.

Bigarren.- Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuari aholkularitza juridikoa emateko zerbitzuaren kontratazio espedientea onartzea, baldintza administratibo berezien agiria eta ezaugarri teknikoaren agiria barne direla.

Kontratuak sinatzen denetik hiru (3) urteko iraupena izango du hasieran, eta gehienez ere bost (5) urte arte luzatu ahal izango da (hasierako iraupena barne).

Hirugarren.- Berrogeita lau mila bederatziehun eta laurogeita sei euro eta berrogeita hemeretzi zentimo (39.988,08 €) baimentzea, 2019ko

El presupuesto máximo de la duración inicial, que será de tres (3) años desde la formalización del contrato, es de 148.716,00 euros más IVA y el valor estimado del importe total del contrato, incluidas las hipotéticas dos (2) prórrogas anuales asciende por tanto 247.860,00 €, más IVA, en total 299.910,60 €.

Los servicios cuya prestación constituye el objeto de la presente licitación se califican como servicios de carácter permanente y de tracto sucesivo, por lo que conforme a lo dispuesto en el artículo 54.3 de Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, no se incluye en el estado de créditos de compromiso pese a su carácter plurianual.

El contrato se califica como de servicios de acuerdo con lo establecido en el art. 17 de la Ley de Contratos del Sector Público, Ley 9/2017 de 9 de noviembre.

De acuerdo con el artículo 156 de la Ley de Contratos del Sector Público, éste se adjudicará por procedimiento abierto.

En virtud de lo anterior, esta Diputada Foral

DISPONE

Primero.- Declarar excluida la oferta presentada por la licitadora M.G.I.B. en el proceso de licitación regulado mediante la Orden Foral 115/2019.

Segundo.- Aprobar un nuevo expediente de contratación para la prestación del servicio de asesoría jurídica para el Servicio de Protección a la Infancia y la Adolescencia, así como los pliegos de cláusulas administrativas particulares y los pliegos de prescripciones técnicas.

El contrato tendrá una duración inicial de 3 años (desde su formalización), prorrogable como máximo hasta 5 años (incluida la duración inicial).

Tercero.- Autorizar un gasto de cuarenta y cuatro mil novecientos ochenta y seis euros con cincuenta y nueve céntimos (39.988,08 €), con



1.0830.310.227.99.00 aurrekontu partidaren kargura, 2019ko maiatza eta Abendua bitartean kontratua gauzatzeko, hau da, zortzi (8) hilabete.

Laugarren.- Kontratua prozedura irekiaren bidez esleitzeko hasiera ematea, Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratazio profilean iragarkia argitaratuz.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Donostian dauden administrazioarekiko auzietako epaitegietan, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko foru diputatuari, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka nahiz baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen orrien aurka kontratazio alorreko hautazko errekurtsu berezia aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsuotarako Foru Auzitegi Administratiboari, iragarkia argitaratu edo orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren biharamunetik hasita 15 laneguneko epean. Bi kasuetan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen edo bereziaren berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke."

cargo a la partida presupuestaria 1.0830.310.227.99.00 de 2019 para la ejecución del contrato durante los meses comprendidos entre mayo y diciembre de 2019, ocho (8) meses.

Cuarto.- Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación abierto mediante el preceptivo anuncio que se publicará en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer, previa y potestativamente, el recurso especial en materia de contratación ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquél en que se haya publicado el anuncio o se hayan recibido o puesto a disposición los pliegos. En ambos casos, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut

Y para que conste, extendiendo la presente certificación

Donostia,

Departamentuko Idazkari Teknikoak / La Secretaría Técnica del Departamento.

Izptua./ Fdo.: M^a Socorro Equiza Equiza

